PDF irisgarria
Irakurketa Errazean

Olabeko Hobiaren Memoriala

Olabeko Hobiaren Memoriala
Olabarren dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Olaibar non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua preso politikoak,
hau da,frankismoaren aurka zeuden pertsonak
espetxeratzeko erabili zuten.
Pertsona asko hil ziren bertan.

1938ko maiatzaren 22an
preso asko gotorlekutik ihes egin
eta Espainia eta Frantzia arteko muga
gurutzatzen saiatu ziren
baina ez zuen ia inork lortu.

Ihes egin zuten 795 presoetatik
frankistek 206 pertsona hil zituzten.
Frankistek pertsona hauek
zelai, mendi eta hilerrietan lurperatu zituzten.

Olabeko hobia
San Kristobal Gotorlekutik
ihes egiten saiatu ziren
presoekin erazionatutako hobirik handiena da.

2016. urtean
Nafarroako Gobernuko
Desobiratze Planaren barruan
desobiratze bat egin zuten
eta 16 presoen gorpuzkiak aurkitu zituzten.

2018. urtean
beste desobiratze bat egin zuten Olaben
aurreko desobiratzetik gertu
eta beste preso baten gorpuzkiak aurkitu zituzten.

Honek esan nahi du
osotara 17 presoren gorpuzkiak aurkitu zituztela.
Nafarroako Gobernuko DNA Bankuari esker
2 pertsonen gorpuzkiak identifikatu ahal izan dituzte.

2021. urtean
Francisco Lecearen gorpuzkia identifikatu zuten.
Francisco Mendabiakoa zen.

2022. urtean
Máximo Sainz Plazaren gorpuzkia identifikatu zuten.
Máximo Desojon jaio zen
eta Gasteizen bizi zen.

2017. urtean
Olaibarreko Udalak memorial bat jarri zuen
bertan hil zituzten 17 presoak gogorarazteko.
Horregatik leku hau
bizikidetza eta memoria leku bat da.

2019. urtean Nafarroako Gobernuak
leku hau Nafarroako Memoria Historikoaren Toki izendatu zuen.